

Espedientea: 2018FFFF0005

Gaia: Emakumeen etxeko logotipoa aukeratzeko lehiaketa

EMAKUMEEN* ETXEAREN logotipoa diseinatzeko lehiaketaren oinarriak

1. Lehiaketaren xedea

Lehiaketa honen xedea da Zarauzko EMAKUMEEN* ETXEAREN irudi izango den logotiporako sormen-diseinu bat hautatzea.

EMAKUMEEN* ETXEA kokatuko den eraikinaren kanpoaldean jarriko da hautatutako logotipoa (Nafarroa kalea 3 – lehengo Turismo Bulegoa), eta euskarri hauetan ere erabiliko da: sustapen-materiala, iragarki-kartelak, foiletoak, argitalpenak, produktuak eta merchandisinga, papertegiko materiala, etab.

Lehiatzaileek aurkezten dituzten lanak originalak izango dira, eta Zarauzko EMAKUMEEN* ETXEAREN oinarri diren balioetan inspiratutako logotipo bat eraikiko dute.

EMAKUMEEN* ETXEAk irekia izan nahi du, atsegina, aldarrikatzailea, hezigarria, ludikoa, askea, feminista, inklusiboa, ahalzungarria, integratzailea, etab.

(EMAKUMEEN* ETXEAk daraman izartxo hizkuntza inklusiboaren sinboloa da; horrekin adierazi nahi dugu era guztietako emakumeak eta identitate, adin, kultura, ideologia... desberdinetako pertsonak hartzen dituela etxeak).

Irudia erraz moldatu eta egokitzea izango da, beste logotipo askorekin batera azalduko delako (esate baterako, Zarauzko Udalarenarekin) eta formatu eta/edo espazio desberdinetan aplikatu beharko delako.

2. Parte hartzeko baldintzak

18 urtetik gorako edozein pertsona fisikok edo juridikok parte hartu ahal izango du lehiaketan, bakarka edo taldean, epaimahaiko kideak eta Zarauzko Udaleko langileak izan ezik.

Parte-hartzaile bakoitzak lan bat aurkeztu ahal du gehienez; lana originala eta berria izango da, aurrez argitaratu gabekoa, eta ez da izango beste diseinu batzuen kopia partziala edo osoa.

Aurkeztutako lanek ez dute hirugarrenen eskubiderik edukiko. Parte-hartzaile bakoitza arduratuko da horretaz eta irudi-eskubideen ondorioz jarritako edozein erreklamazioz.

Hirugarrenekin gatazkarik sortzen bada aurkeztutako lanaren jabetza intelektualaren ondorioz, horren ardura bakarra proposamena aurkeztu duen lehiatzailearena izango da.

3. Lanen formatua

Logotipoa sortzeko prozedura librea da; hori bai, baldintza batekin: EMAKUMEEN* ETXEA leloak idatzita azaldu behar du. Neurriak eta formatuak ere libreak dira, baina erraz irakurtzekoa eta beste formatu batzuetara moldatzeko modukoa izan behar du. Lehiatzaileek ezaugarri teknikoak adierazi beharko dituzte (neurriak, tipografia, pantoneak, etab.).

Erraz erreproduzitzeko eta 4 tinta baino gehiago erabili beharrik ez izateko moduan egingo dira lanak (kuatrikromia*). Ez dira onartuko urre eta zilar koloreak, ez eta kolore fluoreszenteak ere.

(***Kuatrikromia:** Lau koloreren nahasketan oinarritutako inpresio-sistema: ziana, magenta, horia eta beltza. Proportzio desberdinetan nahastuta, gainerako kolore guztiak lortzen dira).

Koloretan eta zuri-beltzean aurkeztuko da diseinu bakoitza. Lanaren azalpen txiki bat ere emango da.

Paperean eta formatu digitalean aurkeztu behar dira.

Formatua: TIF, JPG, GIF edo PDF - Bereizmena: 300ppp (ahalik eta bereizmen handiena aholkatzen da).

Lehiatzaileek logotipoaren diseinua aplikatu behar dute; alegia, muntaia bisual bat egingo dute eraikinaren kanpoaldearen gainean eta produktu sorta batean (foiletoak, argitalpenak, irudi digitalak, web-a, etab.), gehienez bost egin arte.

4. Proposamenen aurkezpena

Proposamenak paperean eta euskarri digitalean aurkeztuko dira, bi kartazal itxitan:

– **A kartazala.** Hauek sartuko dira:

- * Lehiatzailea identifikatzeko datuak (izena eta bi abizen, helbidea, telefonoa, helbide elektronikoa).
- * Nortasun agiriaren fotokopia, edo, atzerritarren kasuan, nortasun agiri ofizial baten fotokopia.

– **B kartazala.** Hauek sartuko dira:

- * Logotipoaren proposamena, euskarri desberdinetan (formatu inprimatuan eta formatu digitalean).
- * Memoria deskriptiboa eta justifikazioa.

Bi kartazaletan idatzita egongo da logotipoaren leloa edo izenburua, eta “Emakumeen etxeko logotipoa” jarriko da. Kartazalean ez da adieraziko lanaren egilea identifika dezakeen izen edo aipamenik.

Zarauzko Udalak baztertu egingo ditu —eta ez ditu baloratuko— oinarri hauetan jarritako gutxieneko baldintzak betetzen ez dituzten proposamenak.

5. Proposamenak aurkezteko lekua eta epea

Aurreko klausulan adierazitako moduan aurkeztuko dira lehiaketan parte hartzeko proposamenak, bi kartazal itxitan, Zarauzko Udaleko Herritarren Arreta Zerbitzuko sarreren erregistroan (Kale Nagusia 29). Ordutegia: Astelehenetik ostiralera, goizez, 7:30etik 15:00etara. Ostegunetan, arratsaldeaz, 17:00etatik 19:00etara.

Aurkezteko epea: otsailaren 1etik 15era.

6. Epaimahaia eta ebazpena

Epaimahai batek hautatuko du lehiaketa honetako logotipoaren diseinua. Honako hauek osatuko dute epaimahai hori:

Mahaiburua:

▲ Zarauzko Udaleko Berdintasun Departamentuko zinegotzia, edo bere ordezkari izendatzen duena.

Mahaikideak:

- ▲ Diseinuan, artean edo komunikazioan aditutako pertsona bat.
- ▲ Zarauzko Udaleko erakusketen arduraduna.
- ▲ Berdintasun Kontseiluko ordezkariak.

Idazkaria:

▲ Zarauzko Udaleko Berdintasun Departamentuko arduraduna, edo bere ordezkari izendatzen duena.

Lanak aurkezteko epea bukatu eta handik gehienez ere 20 eguneko epean elkartuko da epaimahaia, eta logotipo irabazlea aukeratuko du. Epaimahaiaren erabakia ezingo da apelatu.

Epaimahaiak erabakiaren akta egingo du, eta saritutako proposamena zein den adieraziko du. Erabakiaren ondoren, datuen artxiboa irekiko da, irabazlea zein den identifikatzeko.

Epaimahaiak eskumena izango du sormen-lanak baloratzeko, oinarri hauek interpretatzeko eta lehiaketa honen baitan sortutako arazo guztiak ebazteko.

Epaimahaiak lehiaketa hutsik lagatzea proposa dezake, baldin lehiatzaileek aurkeztutako diseinuek ez badute lortzen esperotako kalitatea.

Hautatutako proposamenaren egileari lehiaketaren ebazpena jakinaraziko zaio, eta Berdintasun Departamentuaren blogean eta sare sozialetan ere argitaratuko da.

Lehiaketa ebatzi ondoren, hala nahi duten lehiatzaileek, bere lana itzultzea eska dezakete, epaimahaiaren ebazpenetik gehienez ere hilabete bateko epean. Hala egiten ez badute, Udalak suntsitu egingo ditu egileari itzuli gabeko lanak, eta ez ditu inoiz erabiliko.

7. Saria

800 euroko saria emango zaio EMAKUMEEN* ETXEAren logotipo-diseinu baloratuena aurkeztu duen lehiatzaileari. Sariaren zenbatekoari dagozkion atxikipen fiskalak aplikatuko zaizkio.

Lehiaketaren irabazleak identitate korporatiboaren eskuliburu bat entregatuko dio Udalari, paperean eta euskarri digitalean, gehienez ere 15 eguneko epean, formatu desberdinetarako behar diren aplikazio guztiekin: paperezkoak (kartazalak, txartelak, poltsak, etab.) eta publizitatekoak (merchandising produktua).

8. Balorazio irizpideak

Epaimahaiaren iritziz, Zarauzko EMAKUMEEN* ETXEA hobekien identifikatzen eta ordezkatzeko duten lanak baloratuko dira. Kontuan izango dira originaltasuna, argitasuna, sormena eta kalitate artistikoa.

Balorazio positiboa jasoko dute, baita, logotipoa espazio eta formatu desberdinetara nola egokitzen den erakusten duten proposamenak (web-ak, kartelak, papertegiko materiala, argitalpenak, etab.).

9. Jabetza intelektual eta erreprodukzio eskubideak

Hautatutako diseinuaren egileak Zarauzko Udalari lagatzen dizkio saritutako logotipoaren jabetza eta ustiapen eskubideak, eskusiboki eta denbora-mugarik gabe. Argibide gisa, baina ez zehatz-mehatz, eskubide hauek sartzen dira: logotipoa aldatzeko, inprimatzeko, argitaratzeko, zabaltzeko eta komunikatzeko eskubidea, edozein prozedura edo modalitate erabilita, edozein euskarritan, eta beharrezko iruditzen zaion bakoitzean.

Lehiatzailea arduratuko da lehiaketa honen xedea betetzeko erabilitako materialen, prozeduren eta ekipoen jabetza intelektual, industrial edo merkataritzakoaz, eta berak ordainduko dizkio Administrazioari erreklamazioak jartzeak ekartzen dituen kalte eta galera guztiak; hor sartzen dira, baita, Administrazioaren aurka zuzendutakoek sor ditzaketen gastuak.

Lan irabazlearen egileak ezingo ditu erabili, ez osorik ez partzialki, hautatutako diseinuaren elementuak, piezak eta/edo diseinua, etorkizunean egingo dituen beste lan edo proiektu batzuetan.

10. Oinarriak onartzea eta publizitatea

Lehiaketa honetan parte hartzeak esan nahi du lehiatzaileek osorik ezagutu eta onartzen dituztela oinarri hauek, eta epaimahaiak eta organo deitzaileak oinarriak interpreta ditzaketela, hasiera batean aurreikusi gabeko gai haietan guztietan.

Oinarri hauetan jarritakoek arautuko dute lehiaketa hau, eta bertan aurreikusi ez den guztian Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategina eta garapeneko araudia aplikatuko da.

11. Publizitatea

Oinarri hauek Berdintasun Departamentuko blogean argitaratuko dira, bai eta sare sozialetan ere, beste hedabide publiko batzuk erabiltzeari utzi gabe.

12. Informazio gehiago

Zarauzko Udala – Berdintasun Departamentua
Zigordia 33, 1. solairua (20800 Zarautz)
Tel.: 943 005117
E-maila: berdintasuna@zarautz.eus
www.berdintasunazarautz.wordpress.com